

# EGAK B2 2024

# EGAK B2 2024

# EGAK B2 2024

## Certificat de compétence en basque

Épreuves de niveau B2

### Qu'est-ce que le Certificat de compétence en basque ?

Le dispositif du Certificat de compétence en basque-Euskara gaitasun agiriak (EGAK) sert à vérifier et à valider le niveau de capacité linguistique en Euskara. Il est mis en place sur la base du Cadre Européen Commun de Référence (CECR) qui a prévu 6 niveaux : A1, A2, B1, B2, C1 et C2. La certification de niveau C1 mise en place depuis 2009 a été suivie de la création du certificat de niveau B1, puis à partir de 2022 les épreuves sont organisées pour l'obtention du certificat de niveau B2. Le Dispositif\* s'appuie sur un partenariat entre l'Office Public de la Langue Basque, l'Université de Pau et des Pays de l'Adour et l'Université de Bordeaux Montaigne, et est enregistré au Répertoire spécifique de France compétences pour 5 ans par décision du 29 septembre 2022 : code NSF 136 (RS6106).

### Qu'est-ce que l'examen de niveau B2 ?

Le niveau B2 est celui de l'utilisateur avancé d'une langue, précédant celui de l'utilisateur expérimenté autonome (niveau C1). L'examen de niveau B2 mesure la compréhension à l'écrit et à l'oral, l'expression écrite et orale, ainsi que l'interaction entre deux locuteurs.

### Quelles compétences certifie-t-il ?

L'utilisateur avancé est capable de comprendre le contenu essentiel de sujets concrets ou abstraits dans un texte complexe, y compris une discussion technique dans sa spécialité. Il peut communiquer avec un degré de spontanéité et d'aisance tel qu'une conversation avec un locuteur natif qui ne suppose pas de tension ni pour l'un ni pour l'autre. Peut s'exprimer de façon claire et détaillée sur une grande gamme de sujets, émettre un avis sur un sujet d'actualité et exposer les avantages et les inconvénients de différentes possibilités.

### À qui s'adressent ces épreuves ?

À toute personne sachant parler et écrire la langue basque, acquise soit comme première langue avec alphabétisation par la suite, soit comme langue apprise à l'école, soit enfin comme langue apprise par un adulte en centre de formation ; toutes personnes en cours de perfectionnement, souhaitant attester de leur niveau de langue. Il n'est pas possible de se présenter à deux niveaux de certification lors d'une même session d'examens.

\* Ce Dispositif ne comprend pas d'enseignement en langue basque, mais l'OPLB peut habilitier des organismes de formation pour la préparation à cette certification.

**Non? Noiz? Nola?** Honako egutegia urtean zehar moldatzen ahalko da, antolaketa beharrek hala eskatzen badute.

### Azterketaren antolamendua

Izen emateak:  
2024ko agorilaren 19tik  
irailaren 8ra  
[www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)  
webgunean

Izen emate saria: 35 €  
Ordainketak postaz egiteko epea:  
irailaren 13a

Azterketari behin betiko  
izen-ematearen jakinarazpena  
mezu elektronikoz irailaren 16an

Azterketaren lehen zatia:  
Irailaren 21ean Baionako Fakultatean  
Platanoen bidea, 8  
64100 Bayonne - Baiona

Azterketaren bigarren zatia:  
urriaren 12an edo 19an  
Baionako Fakultatean  
Platanoen bidea, 8  
64100 Bayonne - Baiona

Azterketako azken emaitza  
mezu elektronikoz: azaroaren 15ean

### Organisation de l'examen

Inscriptions :  
du 19 août  
au 8 septembre  
sur le site  
[www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr)

Droits d'inscription : 35 €  
Délai de versement des droits d'inscription :  
13 septembre

Communication aux candidats de leur inscription  
définitive, par message électronique :  
16 septembre

Première partie de l'examen :  
le 21 septembre au Collège EEI de Bayonne  
8, All. des Platanes  
64100 Bayonne - Baiona

Deuxième partie de l'examen :  
le 12 ou le 19 octobre  
au Collège EEI de Bayonne  
8, All. des Platanes  
64100 Bayonne - Baiona

Communication des résultats finaux par  
message électronique : le 15 novembre

Aurkezteko baldintzak:  
2024/12/31n 17 urte beteak izatea  
Frantziar Estatuan, sortu, bizi, lanean edo ikasten aritzea

Beharrezkoak direnak:  
Nortasun agiri bat  
Idazteko tresnak ekartzea  
Tenorez heltzea!

## Euskara Gaitasun Agiriak

B2 mailako probak

### Zer dira Euskara Gaitasun Agiriak (EGAK)?

Euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko egina den dispositiboa da Europako Erreferentzia Marko Bateratuan (EEMB) oinarritua. 2009tik, C1 mailako Euskara Gaitasun Agiria eta 2015ean B1 mailako agiria eskuratzeko azterketak antolatzen hasi ondoan, 2022an, B2 mailako euskara gaitasun agiria eskuratzeko urteroko azterketa-deialdia sortu zen. Dispositiboa,\* Euskararen Erakunde Publikoak, Paue eta Aturriko herrialdeetako unibertsitatearekin eta Bordeaux Montaigne Unibertsitatearekin eraman partaidetza-lanean oinarritua da eta France Compétences erakundeak bere Errepertorio espezifikoa 5 urterako erregistratu du 2022ko irailaren 29ko erabakiz, NSF 136 kodearekin (RS6106).

### Zer da B2 mailako azterketa?

EEMBa 6 maila ditu: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. B2 maila, hizkuntzaren erabiltzaile aurreratuarena da, hain zuzen C1 mailako erabiltzaile gaituaren aitzinekoa. B2 mailako azterketak neurtzen ditu ahozko adierazpena eta entzunaren ulermena, irakurriaren eta idatziaren ulermena, baita bi pertsonaren arteko ahozko elkareragina ere.


### Zein gaitasun egiaztatzen du B2ko agiriak?

B2 maila erdiesten duenak gai izan behar du gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoan ere, betiere bere espezialitatearen alorrekoak badira. Jatorrizko hitzunean mintza daiteke, jarioasunez eta naturaltasunez, solaskideek elkar ulertzeko ahaleginik egin behar izan gabe. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorreki buruzko ikuspegi jakin bat adierazteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.

### Nori zuzendua zaio B2 mailako azterketa?

Euskara dakien orori: izan euskara etxean ikasi eta alfabetatu dena edo eskolan ikasi duena, edota heldua izanki, euskaltegian ikasi duena, beraz euskararen jabetzaren bidean bere hizkuntza maila egiaztatu nahi duen oro Ezinezkoa da deialdi berean maila bat baino gehiagora aurkeztea.

\* Dispositiboak ez du euskara irakaskuntzarik eskaintzen, baina EEPK formakuntza organismoek, gaitasun agiriatarako prestatzaile izateko gaitasuna eman diezaike.



B2 mailako azterketa-ereduak azterketa idatzia eta ahozko azterketa ditu. Biak gainditzea beharrezkoa da B2ko agiria lortzeko.

## EGUNAK / PROBA KOPURUA

B2ko azterketak, bi fasetan eta hiru probatan iragaten dira, antolaketa baldintzek besterik eskatzen ez badute.

- Lehen egunean proba idatzia eta entzunaren ulermena.
- Bigarren egunean ahozko proba.

## AZTERKETAREN LEHEN EGUNA

I. Entzunaren ulermena: 30 minutu inguru

II. Azterketa idatzia: 2:45 orenez

Hiru ariketa mota ditu

1. Gramatikako ariketak
  - 1- Sinonimoak
  - 2- Hutsuneak bete
2. Irakurriaren ulermena
3. Idazlana

## AZTERKETAREN BIGARREN EGUNA

Ahozko adierazpen proba

Bi ariketa ditu

1. Gai baten ahozko azalpena
2. Bat-bateko elkarrizketa saioa

Kandidatuek 15 bat minutu izanen dute probaren lehen ariketa prestatzeko. Aztertzaileen aitzinean, binaka eginen dute proba. Probaren iraupena 15 bat minutukoa da, orotara.

## Nolako azterketak? Zer neurtzen da?

### IDATZIA

#### 1. Gramatikako ariketak

- 1. Sinonimoak

Taula batean diren hamar hitzen baliokide egokiak, ondoko testu batean atzeman beharko ditu azterketariak. Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa du.

10 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 5 puntu erdietsi behar dira gutenez\*.

- 2. Hutsuneak bete

Testu bateko hutsuneak betetzeko, ondoan aurkeztu taulan diren hiru aukerarik zein den zuzena hautatu beharko du azterketariak. Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa du.

10 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 5 puntu erdietsi behar dira gutenez\*.

\* Gramatikako bi ariketen kalifikazioak bilduko dira eta bietatik batean 5 puntu lortu ez bada ere, bien artean gutenez 11 puntu lortuz, gaindituztat emanen dira. Ariketa hau gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

#### 2. Irakurriaren ulermena

Azterketariari testuak eta ulermen galderak eskainiko zaizkio, aukera anitzeko moldean, egia/gezurra forman eta "hutsuneak bete" gisa, erantzun diezaien. 20en gain neurtua da.

#### 3. Idazlana

Bi gai izanen dira aukeran eta kandidatuak horietako bat garatu beharko du. Kandidatuak 250 hitz inguru idatzi beharko ditu.

Ariketa hau gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

30 punturen gain neurtua den idazlanaren ariketa hau gainditzeko, 15 puntu erdietsi behar dira gutenez. Idazlanaren kalifikaziorako ondoko alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, egokitasuna, diskurtsoaren koherentzia/kohesioa eta aberastasuna.

**Euskaltzaindiaren arauak dira zuzentasunaren oinarrian.**

#### Azterketa egokituak

Behar bereziren bat duten azterketariak azterketa berdintasunez egiteko parada ukan dezaten, egokitzapenak ezarriko dira, denboran nahiz baliabideetan, eskatu beharreko gaitasun-maila murriztu gabe betiere. Azterketariak eskaera eta beharrezko mediku-agiria izen-emate epeetan helarazi beharko ditu.

### AHOZKOA

#### 1. Entzunaren ulermena

Azterketa idatziaren egunean eginen da ariketa hau.

Grabaketa zatiak entzuten ditu kandidatuak. Zati bakoitzari buruz galderak eginen zaizkio eta erantzun zuzena hautatu beharko du, aukera anitzeko moldean emanen zaizkion erantzunen artean edota egia/gezurra forman. 10 punturen gain neurtua den ariketa. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

#### 2. Ahozko adierazpena: bi aztertzailez osatu epaimahaiak, azterketariak binaka entzuten ditu

##### a) Gai baten ahozko azalpena

Azterketari bakoitzari gai desberdin bat emanen zaio idatziz, hamabost minutuz prestatzeko. Azterketari bakoitzak bere aldiari, egokitu zaion informazioaren lau bat minutuko azalpena eman beharko du, ondoko elementuak kontuan hartuz:

- gaiaren aurkezpen txukuna egitea,
- mamiaren puntu funtsezkoenak deskribatzea,
- iritzi edo gaiaren hedadura posiblea proposatzea kandidatuak bere baitatik. Kandidatu bakoitzak frogatu beharko du ere besteak egin duen aurkezpena ulertu duela, aztertzaileak eginen dion galdera bati erantzunez.

##### b) Bat-bateko elkarrizketa saioa

Aztertzaileek gai bat eskainiko diete azterketariei. Bakoitzak gai horri buruzko ikusmolde bat garatu beharko du. Kandidatuak elkarrizketan ariko dira, emana zaien ikuspuntuaren alde eginez. Elkarrizketa edo eztabaida bideratzeko edota orekatzeko, aztertzaileek parte har dezakete. Azterketariak, bien artean, guti gora behera zazpi minutuz ariko dira.

Proba hau gainditzea baitezpadakoa da ahozko azterketa eskuratzeko. Ondotik, lehen eguneko "Ahozko ulermena"-rekin batez-bestekoa eginen da.

B2 mailako euskara gaitasun agiriaren azterketa: Proben puntuazioa			
Azterketa mota	Ariketa	Gehienez lor daitekeen puntuazioa	Gainditzeko lortu behar den puntuazioa
Proba idatziak 1	1. Gramatikako ariketak	20	5 bakoitzean edo bien artean 11
	1.1 Sinonimoak	10	
	1.2 Hutsuneak bete	10	
	2. Irakurriaren ulermena	20	
	2.1 Erantzun egokia	5	
	2.2 Zuzen ala oker	10	
	2.3 Hutsuneetan koka	5	
Proba idatziak 1 Orotara		40	20
Proba idatziak 2	Idazlana	30	15
Idatzia orotara		70	35
Ahozko probak	Entzunaren ulermena	10	-
	Ahozko azalpena +	20	10
	Bat-bateko elkarrizketa		
Ahozkoa orotara		30	15
Azterketa orotara		100	

Azken emaitza Bikain/Ongi/Aski ongi/Gainditua edo Ez gainditua izanen da.

Deialdi bateko idatziko kalifikazioak, urte bereko bigarren deialdirako soilik mantenduko dira.